

txintxarri



Berdintasunerantz, atzo eta gaur kirolari

Lasarte-Oriako emakumeek parekidetasunaren aldarrian egindako borroka / 6-9

M.ALTUNA

20. Korrika iristear

Datorren ostiralean aurkeztuko da Korrikaren edizio berria gurean / 5

Islada Ezkutatuak
taldearen
aurkikuntzen
erakusketa
iraunkorra Udalean / 2

Zilarra lortu du
Eneritz Busto LOKEko
atletak Espainiako
junior mailako
Txapelketan / 10

TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali edo ekarri zure curriculum eta eskaera-orria* beteta Ttakunera apirilaren 7a baino lehen.

*bulegoan eskuragarri

- Begirale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria



aisia@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa



Erakusketa ikusgai dago Udaletxeko sarreran herritarrek aurkikuntzen berri izan dezaten. TXINTXARRI

Islada Ezkutatuak aurkikuntzak Udaletxean

Materialaren erakusketa iraunkorra zabaldu zen ostiralean Udaletxeko sarreran. Joxean Muguruza Islada Ezkutatuak kideak zehaztu zuenez, ezaugarri hauek dituen estatu mailako erakusketa bakarra da Lasarte-Oriakoa

Iñigo Gonzalez

Islada Ezkutatuak taldeak urteak daramatza Txaldataxurren eta, orokorrean, memoria historikoaren inguruan lanean. Herrian geratzen ziren Gerra Zibileko aztarnen bila jarri zen taldea ia bere sorreratik 2012. urtean.

Urtetako lanaren ondorioz, asko izan da aurkitutako materiala baina bereziki "Gipuzkoako frentean erabilitako eskuz egindako artefaktuak" bildu dituzte ostiralean zabaldu zen erakusketan. 18:30ean hasi zen inaugurazio ekitaldia eta jarraian bi hitzaldi mamitsu entzun ahal izan zituzten Antonio Mercero gunera bertaratutakoek.

Inaugurazio ekitaldia Miaja general errepublikarra izandakoaren omenezko olerki bat irakurtzen hasi zuen Jesus Zaballos alkateak. Ondoren, eskerrak eman zizkion Islada Ezkutatuak taldeari urteotan guztietan egindako lanagatik,

eta etorkizunean jarraitzea animatu ere bai. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen zuzendari Maribel Vaquerok nabarmendu zuen "itzalpean egon diren aztarna eta gertakariak argitara" ari dela ateratzen Islada Ezkutatuak, eta eskerrak eman zizkien horregatik.

Bukatzeke, Joxean Muguruza hartu zuen hitza Islada Ezkutatuak elkartearen izenean, eta instituzioei egiten duten lana eskertu zien, "instituzio publikoen eta elkarten arteko lankidetzak funtsezkoa baita memoria erreperatzeke lanerako". Ikusgai jarritako piezen esanahiari eta balioari buruzko azalpen bat egin ondoren, 36ko estatu-kolpean eta ondorengo Gerra Zibilean Ipar Fronteak Gipuzkoan eta zehazki Txaldataxurren izan zuen garrantzia azpimarratu zuen.

19:00etatik aurrera, lehenengo Asier P. de Eulatek azalpenak eman zituen, erakusketan

jarritako eskuz egindako artefaktuen inguruan eta ondoren, Joxean Muguruza Txaldataxurreko frentean mintzatu zen. Arestian esan bezala, herritar ugari gerturatu zen ekitaldira.

Hitzaldiak

Ostegunean beste bi hitzaldiez gozatu ahal izan zuten herritarrek erakusketaren harira antolatuta.

Julen Lezamizek 'La Guerra Civil en Gipuzkoa' hitzaldia eskaini zuen. Honek gerrak lurraldean izan zuen garapena azaldu zuen.

Jarraian, 'Euskal Emakumeak Gerra Zibilean: Cecilia G. de Guilarte' izenarekin, Ana Urrutiak emakumeen paperaz jardun zuen, Guilarte korrespontsal tolosarraren adibideaz mintzatu zuen.

Lezamizek emakume honen inguruko liburua ere idatzita du eta solasaldi atseginez gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.

2018ko inauterien gaia aukeratzeko prozesua martxan

Dagoeneko udalak abian jarri du datorren urteko Inauterien gaia hautatzeko prozesua

"Zertaz" leloa daramaten esku orriak banatu ditu udalak etxe guztietan. Honetan herritarrek euren ekarpenak eta proposamenak egin ahal izango dituzte. Festak sailetik adierazi dutenez, "hainbeste denbora lehenago egitearekin lortu nahi da konpartsek eta herritarrek denbora nahikoa izan dezatela datozen inauteritarako mozorroak eta karrozak prestatu ahal izateko".

Martxoaren 17a baino lehen utzi beharko da gaiari buruzko proposamena, parte hartze

postontzietan. "Proposamen guztien artean egingo da hautaketa. Eragin irudimenari eta parte hartu!".

Udalak jakitera eman du ere, 12.252,32 euro banatu zituela konpartsen artean. Horrela izanda, Zentro Zibikoak 1.299,99 euro jaso zituen, Nahaste Borrastek 1.216,60 euro, Elkar Taldeak 1.592,28 euro, Zabaletak 1.535,25 euro, Sasoeta Sasoianek 1.457,45 euro, Erketz EDT k1.540,02 euro, Jalgune 747,50 euro, Intzak Parrandak 1.452,28 euro eta Larramendizalek 1.410,95 euro.

Sarrerak agortu dira

'Go!azen' antzezlanaz gozatu ahal izango da igandean Manuel Lekuonan. Ttakuneko Gazte Klubaren eskariz antolatu da emanaldia eta arrakasta, telesailak izandakoa bezala, gurean ere, erabatekoa izan da.

Lehenengo saiorako sarrerak bi egunetan agortu eta 19:00etan beste saioa antolatu zen. Honetarako ere bukatu dira sarrerak.



ETB



TXINTXARRI

Andaluzia eguneko ospakizunak

Semblante Andaluz elkarteak ederki ospatu zuen asteburuan Andaluzia eguna. Lagun asko izan zituen lagun larunbat arratsaldean, tartean Porrotx pailazoa eta Jalgune kideak izan zirelarik. Igandean egun osoko festa izan zuten.



'Berriketan' saioa egin zen urtarrilaren 28an Manuel Lekuonan. TXINTXARRI

GED-k galdera aurkeztuko du bihar

Prozesu ireki baten ostean, herriko Gure Esku Dago dinamika erabaki du maiatzaren 7an egingo den galdera zein izango den, hau modu ofizialean aurkeztuko dute bihar Brijitarren plazan egingo den ekitaldian

Txintxarri

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago dinamika lantaldeak azaldu duenez, "hilabete batzuetako prozesu parte-hartzailearen ostean, eta hainbat herritarren hausnarketa eta ekarpenak kontutan hartuta adostu da maiatzaren 7an egingo den galdera".

Hau aurkezteko ekitaldi berezia larunbatean egingo da Brijitarren plazan 12:30ean.

Dinamika parte hartzen ari diren herritarrek aipatu dutenez, galdera osatzeko proposamenak "urtarrilean egindako Berriketan saio irekian bildu ziren, bertan dozenaka herritarrek hartu zuten parte".

Adierazi dutenez, topaketa horretatik ateratako hiru galdera proposamen bozkatzeko aukera izan dute prozesuan parte hartu duten herritarrek eta hau izan da modua Lasarte-Orian maiatzaren 7an egingo den galdera erabakitzeko.

Lokala zabalik

Galdera prest dutela iragartzeaz gain, lokala dutela ere esan dute.

Loratu taldeak Kale Nagusiko 16. zenbakian dagoen apaiz etxeko lokal bat izango du bilgune dutozen hilabeteetan.

Informazio gune honetan, materiala eskuratu edo boluntarioen zerrendan izena emateko aukera dagoela aipatu dute.

Hori bai, "datozen egunetan jakinaraziko da zein ordutegi izango duen harrerak".

Zubietan galdeketa

Maiatzaren 7an herrikoarekin batera Zubietan eta Usurbilen ere egin asmo dira galdeketa.

MAIATZAREN 7AN EGINGO DEN GALDEKETARAKO PROZESUEK AURRERA JARRAITZEN DUTE

Zubietako bizilagunek 'Zubiarlean' izeneko elkarte osatu dute galdeketa propioa egin ahal izateko besteak beste.

Eurek jakitera eman dutenez, gaur "Donostian edo Usurbilen errolatutako 16 urtetik gorako zubietar orok 17:30etik 19:00etara herriko plazan egongo den mahaian bere sinadura emateko aukera izango du prozesuari atxikipena erakusteko".

Jarraian, galdera propioaren lanketa egiten hasiko direla iragarri dute.

Horrela izanda, zubietarren parte hartzea eskatzen dute eta proposamenak Kaxkapeko buzoian edota zubiarlean@gmail.com helbidera bidaltzea eskatzen diete herritarrei.

Ondoren, martxoaren 21ean, 19:00etan, Kaxkapen, bilera egingo da eta honetan eztabaidatuko da zein izango den galdera. "Zubietarrok prest gaude ibilbide honi ekiteko, gure herri nortasuna aitortzearen alde lanean jarraitzeko.

NEURE KABUZ

ASIER ODRIUZOLA

Hausnarketa pareta

Martxoaren 8a, emakumeen omenezko bezela ezarrita dagoena, pasa berri den honetan hausnarketa pare bat. Ez naiz gizatalde, lanbide, gaitz, aldarrikapen eta halakoei urteko egun bat eskaintzearen aldeko. Ez horiengandako sentsibilidade gabeziagatik, kontrakoagatik baizik, egunero gauzatu beharko liratekeelako egun bakar batean aldarrikatzen direnak. Emakumearen berdintasun borroka ez du egun bat eta bakarra behar eta merezi. Eguna joan eta eguna etorri jarrera hori benetan gauzatu beharko litzateke baina hori zailagoa da martxoaren 8an, urtero hori bai, ozen ozen emakumea gorestea baino. Gainera, errezeloa daukat gizaldia aurrera doan neurrian geroz eta emakume gehiago ari dela eskuratzen gizarteko erabaki ardurak. Enpresa publikoan bai baina bereziki ihardun publikoetan. Bada hori nahi ez duenik, bada "betiko" estatusari eusten jarraitu nahi dionik, bada pribilegioei aldegiten utzi nahi ez dienik, bada beraz, joandako mendean bizitzen geratu denik. Hitz jokorako baimena eskatuta, gertuko etorkizunean etorkizunik izango ez dutenak dira horiek.

Baina azken puntu bat bota gabe ez nuke hausnarketa amaitu nahi. Aurreko guztia hala izanda ere, ez naiz pertsona ezaugarri bakar baten bitartez erabat mugatzearen zale. Hau da nire proposamena: begira diezaigoun pertsona bakoitzari bere ñabardura anitzak kontuan hartuta eta ez hainbesteko pisua emanez emakume edo gizon izateari, sexu joera hau edo beste izateari, argal edo gizen egoteari, azalez txuri edo beltz izateari. Estutu eta ito egiten gaituzten zigiluak dira.

SpainSkills olinpiadetan

La Salle Berrozpeko Iker Borde ikaslea eta Xabier Puertas irakasle lasarteoriarrak SpainSkills lanbide heziketako olinpiadetan txapelkunak izan dira 'CAD Diseinua' kategorian. SpainSkills estatu mailako lanbide heziketako olinpiadak dira. Madrilen egin da txapelketa eta laugarren aldiz LSBko ikasle batek Euskadi ordezkatzeko du. Urrian World Skills munduko txapelketan parte hartuko dute.



LSB

BIDAIAK TALDEAN Lasarte-Oriatik
NOAOA BIDAIAK- EK LAGUNDUTA

MENDEBALDEKO BETETA
AEB

HIRIBURU BALTIKOAK
ITSAS BIDAIA

UZTAILA

POLONIA

ABUZTUA

Inteenak 2017

NOAOA BIDAIAK
Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaia.com
www.noaobidaia.com



Ipuin kontaketa saioa egin zuten astelehen arratsaldean, Biyak Bat helduen egoitzan. TXINTXARRI

Martxoaren 8ko elkarretaratzea bihar

Emakumearen Nazioarteko eguna izan zen iragan asteazkena, eta hamaika ekintza izan dira egunaren harira antolatu direnak. Horiekin batera, Udalak erakunde adierazpena ere zabaldu du "Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio".

Maidar Azurmendi

Emakumearen Nazioarteko egunaren harira, hainbat ekintza izan dira egunotan Lasarte-Orian.

Ospakizunen astea baino, aldarrikapen astea behar du izan Martxoaren 8ak eta horretarako, besteak beste, elkarretaratzea egingo dute bihar eguerdian, Okendon.

Askotariko adinei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte aurtengo Emakumearen Nazioarteko egunerako.

Martxoaren 5ean proiektatutako 'Figuras Ocultas' filmak ireki zuen sei eguneko egitarau zabala, eta horri jarraiki izan dira beste hainbat ekintza.

Astelehenean esaterako, ipuin-kontalarien saio atsegina izan zen Biyak Bat helduen egoitzan, eta lau emakumeren istorioak entzun ahal izan zituzten bertara gerturatutako ikus-entzuleek.

Atzo bost urtetik aurrerako txikientzako ipuin kontaketa saioa izan zen, arratsaldean, liburutegian.

Gaur 'Agora de mujeres' antzerkia kultur etxean, eta bihar berriz ekintzaz beteriko eguna izango da. Eguerdiko 13:00etan, elkarretaratzea egingo da Okendo plazan. Aurretik, Zumba maratokia izango da leku berean, beraz, kirol pixka bat egin nahi duenak aukera bikaina izango du Okendora gerturatu eta musikaren eritmorra gorputza zertxobait astintzeko. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, eguraldi txarra egingo balu, Loidibarrengo pilotalekuan egingo da zumba saioa.

Egitarauari amaiera emateko, 'Koadernoia zuri' antzerkia ikusteko aukera izango da Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan 5.50 euroren truke.

Erakunde adierazpena

Egitrauekin batera, Lasarte-Oriako Udalak Emakumearen eguna dela eta zortzi printzipio finkatzen dituen txostena eman dute ezagutara erakunde adierazpena zabaldu du

"Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio".

"Emakume gutxi daude ordezkatuta udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete".

Hori jaso zuen Inger Lingek Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Lasarte-Oriako Udalak Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduaren behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere.

San Markorekin hitzarmena sinatu du udalak

Honen bidez hondakinetatik errefusaren parte eta tamaina handikoak biltzea esleitzen zaio

Txintxarri

Udalak eta San Markos Mankomunitateak hitzarmena sinatu dute. Honen bidez Lasarte-Oriako udalak mankomunitateari esleitzen dio hondakinetatik errefusaren parte eta tamaina handikoak biltzeko kudeaketaren ardura.

Jesus Zaballos alkateak eta Jaime Dominguez mankomunitateko lehendakariak sinatu zuten hitzarmenaren bidez udalak mankomunitateari esleitzen dio hondakinetatik errefusaren parte, hirigunean eta landa gunean, eta tamaina handikoena hirigunearen barruan biltzeko kudeaketaren ardura.

Hitzarmenean jasotzen da bilketa horretan zein baldintza bete behar dituzten bi erakundeek, bai etxeetako hondakinen bilketan, baita

merkataritzako eta ostalaritzako hondakinen bilketan ere.

Zerbitzuagatik Udalak Mankomunitateari gehienez ere 356.514,13 euro ordainduko dizkio. Honi esker, udalak azaldu duenez, "hasiera batean udalaren diru-kutxarentzat aurrezpen handia izateaz gain, udalerrian sortutako hondakin guztiak kudeatzera pasatuko da Mankomunitatea, eta horrek hobetu egingo du zerbitzua".

Jarraipen batzorde bat sortu da ere zerbitzua herriko jai egunetan edo egun berezietan nola eman definitzeko, zerbitzua hobetzeko egin beharreko aldaketak aztertzeko, arazoak sortu ahala haiek aztertzeko eta hitzarmenaren interpretazioa egiteko.

Mankomunitatea bilketa egiten bost hilabete barru hasiko da.

Udal musika eskolen arteko trukea martxoaren 30ean

Lasarte Oriako Udal Musika Eskolak jakitera eman duenez, Tobera Musika eskolarekin trukea egingo du ikasturte honetan.

Tobera Musika Eskola Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloa herriak biltzen dituen Musika Eskola da. Eta gurean izango dugu martxoaren 30ean. Kontzertu polita prestatu dute

Manuel Lekuona Kultur Etxean eskaintzeko, mota guztietao doinuekin, honakoa 18:30etan izango da eta herritarrek honetara gerturatzea animatzen dituzte.

Ondoren, herriko musika eskolako kideek bisita bueltatuko dute. Kontzertua, Segurako Aterpetxean izango dela iragarri dute sustatzaileek nahiz eta oraindik eguna eta ordua zehaztu gabe egon. Esperientziak ikasleentzat duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute.

Bikotean elkarbizitzeko gakoei buruzko tailerra

Asteartean hasi eta martxoaren 14 eta 21ean. 16.30etatik 18.00etara. Emakume zentroan doan egin daiteke bikotean elkarbizitzeko gakoei buruzko tailerra.

Tailer honetan bikoteari buruz hitz egiten da. "Askotan tresnak falta zaizkigu bizipen egoki eta zoriontsuak izateko bikotearekin eta 3 saio hauetan buelta bat

emango diegu egoera hauei tresna batzuk ikasteko, parekotasunean eta bikote sinergikoetan".

Bikoteen artean "askotan batez ere kosteak dira eta ez hainbeste etekinak. Hortaz, helburua da bikoteen koste-etekin balantza orekatzea ahalik eta hoberen bizi eta elkarbizi ahal izateko".

Honen inguruko informazioa edota izena emateko, lasarteasexoria@lasarte-oria.eus-era idatzita edo 943 363 958 telefonoz.



Gauetz egingo du ibilbidea Korrikak Lasarte-Oriatik. TXINTXARRI

Korrikaren 20. edizioa iristear

Martxoaren 17an aurkeztuko da Korrika Manuel Lekuonan eta honekin batera hainbat ekintza izango dira gurean apirilaren 4a iritsi bitartean, egun horretan Donostiatik sartuko da Korrika gurean 22:40ean

Maider Azurmendi

Apirilaren 4ean etorriko da Donostiatik Korrika gurera. Azken urteetan ez bezala, gauetz pasako da herritik 22:41ak inguru antolakuntzak jakitera eman duenez. Egun horretan euskaltzaleek ziur ez dute hutsik egingo, baina aurrez, Korrika nabaritu egingo da gurean ere.

Korrikaren bueltan urteak dira herriko hainbat eragilek elkarlanean, ekintza egitaraua prestatzen dela. Horrela izanda, aurtengoan ere izango da aukera, hainbat ekitaldiez gozatzeko.

Lehenengo hitzordua datorren ostiralekoa izango da. Hilaren 17an modu ofizialean aurkeztuko da Korrikaren 20. edizioa. Honakoa Manuel Lekuonan egingo da 19:00etan eta honetan besteak beste, kilometroa erosi duten eragileek euren petoak jasoko dituzte.

Bertsokorrikak ez du hutsik egingo eta martxoaren 19an, igandean, saioa izango da Furia Beltza tabernan. Bertsotan ariko

dira Miren Artetxe, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Ane Labaka, gai jartzaile lanetan Amaia Agirre jardungo da, eta musikari Ixak Arruti eta Gari Otamendi izango dituzte lagun.

Korrika txikia

Martxoaren 31n txiki eta gazteek Korrika Txikian parte hartuko dute herrian zehar ibilbidea eginez 11:15ean hasita eta Andatza plazan bukatuta.

Arratsaldean berriz, 19:00tan Manuel Lekuonan pasa berri den Euskararen 9. Maratoiaren bideo laburpenaz gozatu ahal izango da. Honetara sarrera doan izango da eta bertan dokumentala salgai jarriko da jai honen oroigarria etxera eraman nahi duten herritarrentzat. Dokumentala girotuko dute zortzikoteko kideek.

Egunari amaiera borobila emateko berriz, 'Gutik Zura' dokumentala ikusi ahal izango da Okendo Zinema taldearen

zineforum saioaren baitan 22:00etan.

Korrika Festa

Apirilaren 1ean, larunbata izanda, Korrikaren festa handia egingo da gurean. Honetan kantu jira, herri bazkaria, haurrentzako jolasak, erromeria eta kontzertuak izango dira egun osoan zehar iragarri denez,. Egun honetan bertan, 20:00etan Manuel Lekuonan, Ane Labaka eta Bea Egizabal herritarren 'Erradikalak gara' ikuskizunaz gozatu ahal izango da.

Apirilaren 4ean berriz, astearte gauean jasoko dugu Korrika gurean. Donostiatik 22:40ean iritsiko da Errekaldetik eta aurreko edizioan egin zen ibilbidea osatuko da herriko kaleetatik barrena.

Pailazok apirilaren 8an egingo duten 'Tipi-Tapa Korrika' ikuskizuna Korrikaren egitarauaren baitan txertatu du Irakurle Txokoak.

Plaza libreak estimulazio kognitibo taldean

Lanketa Gizarte Zerbitzuetatik egiten da eta doan dira baldintzak betetzen dituzten herritarrentzat

Txintxarri

Udaleko Zerbitzu Sozialetako sailak jakitera eman duenez, estimulazio kognitiboko taldeetan parte hartzeko plazak geratzen dira.

Honakoak andeatze kognitiboa diagnostikatu zaien pertsonaie zuzenduta daude. Saiok doan dira eta astearte eta ostegun goizetan biltzen dira.

Udalak, "mendekotasuna saihestu eta norberaren autonomia sustatzeko, estimulazio kognitiboko bi talde dauzka".

Talde horien helburua "parte-hartzaileen bizi-kalitatea hobetzea da", haien funtzio kognitiboak estimulatuz eta eguneroko bizitzako jarduerak aurrera eramateko duten gaitasun funtzionala landuz.

Gaixotasunaren hastapenean

Zerbitzu horren hartzaileak andeatze kognitiboa diagnostikatu zaien eta horrek dakartzan galerak bizi dituzten pertsonak dira, betiere gaixotasunaren hasierako edo tarteko etapetan egon behar direla kontutan hartuta.

Saioetan talde jarduera ezberdinen bitartez eta begirale baten laguntzarekin beren gaitasun guztiak lantzen eta estimulatzen saiatzen dira; memoria eta kalkulu ariketen bidez, albisteak irakurritz, idatziz, gimnastika eginez, mugikortasuna landuz, ohiko ibilbideak gogoratuz, erlaxatuz, ikus-entzunezko ariketekin besteak beste.

Bi talde daude momentu honetan martxan, 10 laguntzako tokiarekin. Asteartero eta ostegunero biltzen dira, goizez, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan.

Ikastaroa urte osokoa da, eta abuztuan bakarrik eteten da oporraldia medio. Une honetan, bada plaza librerik bi taldeetan. Saiok ordu eta erdikoak dira, 10:00etatik 11:30era eta 11:45etik 13:15era.

Interesatua dagoen edonork alde zuzenean bere erreferentziako langile sozialarekin egon beharko du, kasua balora dezan. Hitzordua eska daiteke Villa Mirentxun edota 943 376 179 telefonora deituta.



TXINTXARRI

Datorren urteko kartel iragarlea

Asteazkenean saritu zituzten Martxoak 8rako antolatutako kartel lehiaketako lanak. Lehenengo edizioa izan da aurtengoa, eta guztira, lau lan aurkeztu dira. Naiara Pradoren kartela izan da irabazlea eta 150 euroko saria eskuratzeaz gain, datorren urteko martxoaren 8ko kartel iragarlea izango da berea. Marta Escudero eta Gwapna Lahidalga izan dira bigarren eta hirugarren.

Berdintasunaren bila kirolean ere

Atzoko oztupoak oraindik erabat gainditu ez badira ere, aurrera pausoak emanaz, geroz eta emakume gehiago dira kirolaren munduan aurrera egitea lortzen dutenak. Lasarte-Oriako hainbat emakume kirolariren esperientziak bildu ditugu erreportajearen

Txintxarri Gizartearen arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak nabariak dira. Kirolatan ere, parekidetasunaren aldeko aldarriak ez dira inondik inora berriak, eta gizonetako baino emaitza hobekien lortzen dituztenen ere, merituen aitortpena ez da berdina izaten. Hedabideetan batzuen eta besteen lorpenen oihartzunaren artean desoreka handia dago oraindik, eta soldata eta sari apalagoak jasotzen dituzte emakumeek kirol gehienetan.

Historiari begiratu bat

Lasarte-Oriako ATC (Aplicaciones Tecnicas de Caucho) enpresako langileek eta haien lagunek osatu zuten emakumezkoen lehenengo saskibaloia taldea, 1964. urtean. Ordura arte, gehienez ere lagun artean egiten zuten kirola Lasarte-Oriako emakumeek, eta ez zuten txapelketetan edota maila federatutan parte hartzen.

Hurrengo hamarkadan, emakumezkoen presentzia kirol diziplina ezberdinetan sendotzen joan zen Lasarte-Oriako.

Atletismoan, esaterako, emaitza bikainak lortu zituzten Michelin-Landaberri taldeko atletek 1974tik aurrera. Horien artean Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduen ugari zeuden. Besteak beste, Ana Mari Fernandez, Noemi Montero, Elena Ollokiegi, Marta Urkola, Nekane Arratibel eta Letizia Galardi.

Saskibaloian talde ugari etorri ziren ATCren bide beretik, Michelinek, Sasotaren edota Ostadarren izenpean, esaterako. Lehenengo mailara iritsi ziren lau jokalariek eman zituen, halaber, herriak: Arantxa Maiza, Ana Mari Fernandez, Ana Belen Peña eta Maite Maestro.

Futbolearen 1991ean ateratzen zuten Ostadarrek lehenengo emakumezkoen taldea, Añorga edo Easo Sport taldean jokatzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da 1970ean partidu batzuk jokatu zituztela Lasarte-Oriako emakume batzuek, Mikel Etxarrik entrenatuta, eta Oñati, Erandio eta Errenteria aurkari zituztela.

Igeriketan ere talde onak izan ditu gure herriak. Michelinek igeri egiten zuen Amaia Larrañaga, esaterako, Munduko Txapelketan lehiatu zen 1986an. Beranduago, Euskal Herriko Txapelduen izan zen Larraitz Artetxe herritarra.

Bestetik, Mariasun Yurritak tenisaren arrakasta handia izan zuen 80ko eta 90ko hamarkadetan, non Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketa ugari irabazi zituen.

Dibertsifikazioa

Gaur egun egoera asko aldatu da. Emakume lasarteoriatar ugari aritzen da kirol oso ezberdinetan, eta nabarmentzekoak dira azken hamarkadako lorpenak. Maialen Chourrautek Rio de Janeiroko joko olinpikoetan eskuratutako urrezko domina da horien adierazle nagusia, baina diziplina

SARI ETA SOLDATA XUMEAGOAK JASOTZEN DITUZTE ORAINDIK ERE EMAKUMEEK

1964TIK AURRERA, EMAKUMEZKOEN KIROL TALDEAK SORTZEN HASI ZIREN LASARTE-ORIAN

ezberdinetan maila handia erakutsi dute Lasarte-Oriako kirolariek.

Hala ere, esan bezala, gizonetako baino oztupo gehiago eta traba handiagoak pairatzen dituzte oraindik ere. Euren kirolatan jasaten dituzten desberdintasunen inguruan galdetu diegu gaurko eta atzoko emakume kirolari lasarteoriatar batzuei.

Kirolaren munduan sexuen arteko desorekak eduki duen bilakaera hobeto ulertzeko zenbait gako jarri dituzte mahai gainean; parekidetasunaren bidean, eman beharreko urratsak eta gainditu beharreko oztupoak nabarmenduz.

Arlo psikologikoak garrantzia handia du kirolaren. Presioa, etsipena, arrakasta eta beste zenbait alderdi kudeatzen jakin behar du kirolari batek. Norabide horretan, Amaia Ramirez kirol psikologo lasarteoriatarrek bere ikuspegi partekatatu du, psikologiatik gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortze aldera, egin beharreko planteamenduak eta lanketarako azpimarratuz.

Berdintasuna ez da egun bakarreko borroka, eta arlo guztietan eman beharreko urratsekin soilik lor daiteke. Hala ere, kirolak gizartearen duen garrantzia kontuan hartuz, parekidetasunaren aldeko lanketaren aldarrietako bat izateko indarra dauka.

Etorritako kirolariak formakuntza bidean daude oraindik, eta eskola kirolean esaterako, mutilak neskak baino gehiago izaten jarraitzen badute ere, zenbakiak orekatuagoak daude: %43,9a dira emakumezkoak. Horren gainean eraikitzea izango da gakoetako bat.



EIDER MENDIZABAL

Bizkaia-Durangoko txirrindulari ohia.

"Bistakoa da kirola geroz eta jende gehiagoren egunerokoaren parte dela, baita emakumeen bizitzan ere eta hori oso pozgarria da; hala ere, horrek ez du esan nahi bi sexuen egoera berdina denik. Txapelketa arloan batez ere, oraindik mutil gehiago dago eta emakumeak baino baloratuagoak daude. Nik barrutik bizi izan dudana kirolean emakumeak askotan kirol taldeaz gain familiaren laguntza behar izan dugu aurrera jarraitzeko, mutil gehien kasuan taldea kargu egiten den bitartean. Egia da gaur egun neska gehiagok egiten dutela aurrera eta nik bizi izandako egoera hobetu dela entzuteak pozten nau".



LORENA ZABALA

CD Sumendiko izotz hockey jokalaria.

"Alde batetik, emakumeak oraindik ere gizonetakoak duten onarpen maila bera lortu nahian gaudela ikusten dut; nahiz eta emaitza berdina edo hobekien lortzen ditugun askotan. Nire diziplinan atzetik goaz zenbait alderditan, beste kirolatan bezalaxe. Izotz hockey gutxiengo bati bakarrik interesatzen zaiola kontuan hartuta, pentsa emakumezkoen atalak eduki dezakeen oihartzuna... Traba edo oztupo handirik ez dugu, baina gizonetakoak atalak du beti lehentasuna entrenamenduak edo partiduak egiteko garaian. Hala ere, emakume borrokalari eta gogorrek gara; eta batez ere, hockeyaren zale amorratuak".



NIEVES CIVICOS

Herri lasterkaria.

"Geroz eta emakume gehiago ikusten dira kirol munduan. Hogei urtetik gora daramatzat nik kirola egiten, eta lehen ez ziren hainbeste emakume ikusten kirola egiten. Orain "Boom" bat izaten ari da eta oso ondo dagoela uste dut. Lasterketa munduan, emakume gutxi ginen orain urte batzuk korrika ibiltzen ginenak, eta gaur egun ordea, emakume ugari ari gara. Geroz eta gehiago, lasterka. Diskriminazioa bazegoen garai haietan. Herri lasterketetan lehen hiru gizonetako irabazleentzako bakarrik izaten ziren sariak. Gaur egun, zorionez, hori ere aldatu da eta emakumeen kirola ere saritzen da".

Nola ikusten duzu EMAKUMEEEN egoera kirolean?



IRAIA IPARRAGIRRE

Realeko jokalaria.

"Aurrera pausu handiak egin diren arren, bide luzea geratzen da oraindik berdintasunera iristeko. Kirolaren munduan joera handia dago gizonetakoekin konparaketak egitera, edo behintzat nik hori sentitu izan dut. Ez zait atsegina egiten, ezin baitira batzuen eta besteen gorputzak alderatu. Nire betiko ametsa lehenengo mailara iristea izan da eta, ahaleginak ahalegin, lortu dut ailegatzea. Aurtun, Iberdrola da ligako babesle nagusia, eta partidu gehiago ikusi ahal dira telebistan. Positiboki eragin digu guri, geroz eta jende gehiagok emakumezkoen futbola ikusten duelako eta konturatzen direlako kirola hau soilik ez dela gizonetakoena".



PAOLA VEGA


Beltzak Errugbi taldeko jokalaria.



INTZA FERNANDEZ

Donostiarra taldeko arraunlaria.

"Orokorren nire ustez pixkanaka geroz eta gehiago baloratzen zaigu emakumeoi, baina beti mantentzen da kirol gehienak gizonentzat eginda dauden pentsamendu hori, emakumeentzat gogorregiak omen dialako, eta hau arrauean entzunda daukat. Estropada baten beroketa egiten ari ginela, lehorren zegoen gizon bati esaten entzun nion arrauna ez dela emakumeentzat eta ea azkar bukatzen genuen, berak gizonak ikusi nahi zituela. Hau beste kirol askotan ere gertatzen dela pentsatzen dut. Gaur egun, gure arraun klubean ere, bigarren plano batean sentitzen gara askotan".



MARIASUN YURRITA

Tenislari ohia eta tenis irakaslea.

"Emakumearen egoera kirolean hobera egin duen arren, begibistakoak dira oraindik ere sexuen artean dauden desberdintasunak. Halaber, komunikabideetan ez dugu oihartzun bera izaten. Berdintasuna oinarritik sustatu behariko litzateke. Tenisean, nire garaian, emakumezkoak dirutan erdia irabazten genuen txapelketa edo sari berdina eskuratzeagatik. Txapelketa askotan, gona janztera derrigoritu gaituzte, eta emakume tenislariak itxurarengatik epaitzen dituzte. Orain dela hilabete batzuk komunikabide batek nabarmentzen zuen 'soineko deigarria jantziak' irabazi zuela kirolari batek Grand Slam bat".



MANOLI ZUMETA

ATC taldeko saskibaloia jokalaria ohia.

"Saskibaloiean jokatzeko hasi ginenean, herrian ez zen emakumezkoen beste talderik. Harrera ona izan genuen, nahiz eta guk besteek esaten zutenari jaramonik ez genion egiten. Hala ere, egia da gizonetako taldeak serioago hartzen zituztela, eta emakumeok gurea borrokatuz lortu behar izan genuen. Egoerak hobera egin duen arren, oraindik asko falta berdintasuna lortu ahal izateko. Emakumeak oraindik oso zaila dute kirolaz bizitzea, eta gizonak agintean jarraitzen duten bitartean zaila egongo da. Guk kirolari esker lagun taldea osatu genuen. 'Marimutilak' ginen. Ez genuen panpinekin jolastea gustoko, eta baloia nahia genuen".



ENERITZ BUSTO

LOKEko atleta.

"Berdintasunaren ikuspuntutik, atletismoan hobeto gaude. Hala ere, emakumezkoen partidu eta saio gutxi ikusi daitezke telebistan. Gainera, kirolarekin zerikusi handirik ez duten eztabaidei buruz aritzen dira askotan. Esaterako, joko olinpikoetan boleiboleko jokalariek janzkerari buruzko polemika sortu zenean. Iruditzen zait arropa 'probokatioa' janztera behartzearena lotsagarria dela, emakumeak ikusteak, eta ez kirola, bihurtzen baitute helburu. Berdintasunaren bidean pertsonak gaitzabekatu beharko genuke eta ez gorputz polit edo itsusiak. Hitz egin dezatela gure jardunaz".



NELY CARLA ALBERTO

Chambrey Touraineko eskubaloia jokalaria.

"Pixkanaka egoera aldatzen ari bada ere oraindik emakume eta kirolari profesionala izatea oso zaila dela uste dut. Txikitatik erakutsi izan digute emakumeek aisiarako, gure gozamenarako egiten dugula kirola; helmugarik gabe. Mutilek, aldiz, egunen batean kirolari profesionalak izateko ametsarekin ekiten diote kirolari txikitatik. Ni pribilegiatua sentitzen naiz tituluz beteriko kirol biziaren profesional bat izateagatik, baina horretarako, Frantziara joan behar izan dut. Emakumeek profesional izateko gizonetakoak bezainbeste lan egiten dutela kontuan izanda, urratsak eman behar dira berdintasunerantz".

Herritarrak 28. Lilatoian

Urtero bezala, hainbat lasarteoriatar animatu ziren iragan igande goizean Donostiara joan eta Lilatoian parte hartuz berdintasuna eta emakumeen eskubideak ozen aldarrikatzera. 138 herritarrek eman zuten izena lasterketan eta 116k zeharkatu helmuga-lerroa.

Aurten ere Maite Salazar izan da lasarteoriatar azkarrena, 20 minutu eta 34 segundoko marka egin zuen herritarrak.



TXINTXARRI

“Nesken kirol-sozializazioa landu behar da gehien”

AMAIA RAMIREZ KIROL PSIKOLOGOA

Kirol munduko hainbat arlotan ari dira lan eta lan emakume herritarrak. Amaia Ramirez kirol psikologoa da: NARE enpresa sortu eta bertako lehendakaria da, besteak beste.

Iñigo Gonzalez

Kafe baten bueltan hamaiketako egiteko geratu eta bazkalordura arte luzatu da solasaldia. Amaia Ramirezek (Lasarte-Oria, 1967) luze eta zabal hitz egin du TXINTXARRIekin gai askori buruz. **Nola azaldu kirol psikologo batek zertan egiten duen lan?**

Kirol psikologo batek lan egiten du kirol arloan eskatuak diren helburuak gauzatzeko laguntzeko, hainbat esparrutan: kirolariek inbraiek, entrenatzaileekin edo klubekin. Hori, konpetizio-kirolari dagokionez. Arbitro eta epaileekin ere egiten dugu lan, erabakiak hartzeko gaitasuna eta antzeko ezaugarriak hobetze aldera. Eta ezin ahaztu ingurune konpetitibotik at kirola egiten duten pertsonen. Izan ere, guztiek ez dute aukeratzeko konpetizio-kirol bat, baina kirola egiten duen orok arazoak dauzka poltsa egunero egin eta ongi pasatzeko edo osasuntsu sentitzeko helburuz ariketa egiteko. Hor lan-esparru zabala daukagu.

Behar adina garrantzia ematen al zaio zuen jardunari?

Ezberdindu egin behar gara kirolaren munduko beste profesional batzuekiko. Nola? Guk dakiguna egiten: jarrerak aztertzen, lortu nahi diren



Kirol psikologia du ogibide Amaia Ramirezek. AMAIA RAMIREZ

helburuak zeintzuk diren baloratzen, eta, hortik abiatuz, teknika eta metodologiak sortzen, nahi diren aldaketak lortzeko. **Zer da 'aldaketa'?**

Edozer gauza lortu nahi badugu, edozein helburu, aldaketa bat dago abiapuntuan, izan kolektibo edo norbanako bat.

Faktore bakarra ez da izango, baina motibazioak garrantziarik badu?

Psikologiak ebaluazio-teknika eta elkarrizketen bidez baloratzen ditu zeintzuk faktorek eragiten duten pertsonen motibazioan.

askorekin jartzen zaituelako harremanetan. Hori bai, balore sozializatzaile horiek gaztetxoei transmititzeko prozesua ongi gidatu behar dute agente sozializatzaileek. Entrenatzaileen lana funtsezkoa da fase horretan, eta gurasoek lagundu behar diete. **Nolakoa da emakumearen presentzia kirol psikologian?**

Oro har, presente gaudela esango nuke. Halere, datu zehatzik ematerik ez dudan arren, profesionalki klub batekin lan egiterakoan eskusiboki, oraindik gizon gehiago daude.

Eta kirol munduan, orokorrean? Pixkanaka, aukera gero eta gehiago dituzte emakumeek kirol diziplina desberdinetan aritzeko, eta presentean gaude parte hartzen, arbitratzen, zuzendaritza-organoetan... Baina egia da oraindik neurri konkretuak falta direla hazkunde hori, anekdotikoa baino, erreala izan dadin.

Errendimendu altuko kirolari dagokionean, profesional izatera iristea zaila da oso oraindik emakumeentzat. Ereduak sortu behar dira, egiten duten lana ikusarazi, babesleak erakartzeko, eta dituzten oztipoak murriztu. **Kirol psikologiaren talaiatik, zer landu parekidetasunaren bidean?**

Hastapen fasean neska-mutielek jarduera egiteko gai sentitu behar dute; entrenatzaileek helarazi behar diete hori, helburu erreale eta egingarriak planteatuz. Familiak babestu egin behar dute. Kirolean urrats horiek eginez, beste esparru askotara ere eraman ditzake: Zergatik ez du egingo ikastetxean, adibidez?

Nerabe izatera iristean, kirol arloan urratsak egiten doaz, bai, baina konpetitzeko maila ona eduki behar da. Kirolaria ez dela iristen horra? Ados, ba ez da

ezer gertatzen. Jarrai dezake partizipazio kirola egiten, ongi pasatzeko eta osasuntsu sentitzeko, esaterako. Baina emakumeen presentzia murrizta da hor: neskek ez dira sozializatu mutilak bezainbeste kirolarekin, lagunengandik urrun egin behar izan dute, edo, bestela, lagunekin, baina ekitaldi antolaturen batean. Urteen poderioz, edo talde hori mantentzen dute, edo kirola uzten doaz. Esparru hori landu behar da gehien nire ustez.

Eta, nerabearoan konpetitzeko adina gaitasun duten eta profesional izaten saiatzea hautatzen duten nesken kasuan, tranpolin lana egin behar dugu: ereduak sortuz eta egiten dutenaren berri emanez, eta enpresek eurak babestuz.

Nolatan kirol psikologia? Gaztetan eskubaloian jokatu nuen. 17 urte nituela, Ohorezko Mailan aritzen nintzen Hernanin, eta injustizia ugari ikusten hasi nintzen genero-ikuspuntutik. Sentitu nuen etorkizunean saiatu nahi nuela kirol arlo profesionalen bateko gidari izaten.

Esan, eta egin. Psikologia da nire pasioa: gauzak hobetzen saiatzea eta baloreak gehitzea. Horretarako, ikasi eta jakin behar nuen jarrerak eta jokamoldeak ulertzen eta karrera hori ikasten hasi nintzen, eta kirolean espezializatu gero. Pixkanaka eredu bat eraiki dut. **Zertan zabilzta orain?**

NARE enpresa sortu eta bertako lehendakaria naiz. Kirol-talentua sustatzeko 'Sport Talent Factory' asesoria teknikoan ere ari naiz. Ezintasunak dituzten kirolariek lan egiten dut, kirolaren bidez engeiatu eta sozialki integratu daitezten. Aholkularitza, ikerketa eta formazioan ere ari naiz.



ARGAZKIAK: JOSE LUIS MARTINEZ ORTIZ, SANDRA AYALA CANO, BURUNTZALDEA IKT, INTZA FERNANDEZ, AIZPEA ARROYO ETA TXINTXARRI ALDIZKARIA

Urte emankorra kirol arloan

2016ko martxoaren 8tik aurtengora arteko erreposoa eginda, ondoriozta daiteke 365 egun oso emankor izan direla emakumezkoen kirol arloan. Eta ez dirudi erritmoak behera egingo duenik. Hona hemen gogoratzeko moduko zenbait gertakari.

Txintxarri

365 egunek askorako ematen dute. Kirol arloan, zer esanik ez. Emakumezkoen kasuan ere horrela izan da. Errepaso txiki bat egin dugu 2016ko martxoaren 8a abiapuntu eta aurtengoa helmuga izanik.

2016KO MARTXOA

2016-03-19. Eneritz Busto LOKEko atletak brontzea kolokoratu zuen pista estaliko Espainiakoa, 60 metro hesietan. **2016-03-20.** Meritxell Izagirre 4. izan zen Europako dardo txapelketan, kriket modalitatean. **2016-03-20.** Enara Fernandez eskiatzaileak bi urte irabazi zituen Sierra Nevada, slalom eta slalom erraldoian.

2016KO APIRILA

2016-04-10. Ostadar SKTKo saskibaloia lorrek juniorrek

Euskal Ligan mantentzea lortu zuten matematikoki. **2016-04-27.** Iraia Iparragirre futbolaria Realarekin debutatu zuen emakumezkoen estatu mailako kategorian gorenean.

2016KO MAIATZA

2016-05-19/29. Aizpea Arroyo LOKEko gimnastak Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak irabazi zituen, uzta eta mazekin. Alazne Gonzalez taldekidea hirugarren izan zen uztaiek. **2016-05-22.** Nely Carla Alberto eskubaloia jokalaririk Frantziako Kopa irabazi zuen Brest Bretagne taldearekin. Mailaz ere igo zen.

2016KO EKAINA

2016-06-04. LOKEko atleta Ane Galardik zilarra irabazi zuen luzera jauzian, eta brontzea Eneritz Bustok, 100 metro hesietan. Absolutu mailako

Euskadiko txapelketan erdietsi zituzten emaitza horiek. **2016-06-12.** Maialen Chourraut piraguistak urrea irabazi zuen Seu d'Urgellen jokaturako Munduko Kopako proban (Pau).

2016KO UZTAILA

2016-07-03. Buruntzaldea IKTko igerilari Nahia Zudaire nagusi izan zen Euskal Herriko Igeriketa Egokituko txapelketako sailkapen orokorrean, 100 eta 200 metro libreetan irabazi, besteak beste. **2016-07-03.** Atletico SS taldeko Maria Eugi herritarrak bi brontze irabazi zituen Espainiako aire librekoan: 200 metroetan bat eta 4x100 erreleboetan bestea.

2016KO ABUZTUA

2016-08-11. Maialen Chourraut piraguistak urrezko domina irabazi zuen Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan, K1

modalitatean. Nely Carla Alberto eskubaloia jokalaririk diplomatu olinpikoa irabazi zuen kirol ekitaldi horretan.

2016KO IRAILA

2016-09-11. Intza Fernandez arraunlaria bosgarren izan zen Kontxako Banderan Getaria-Zarautz taldearekin.

2016-09-17. Buruntzaldea IKTko kide Leire eta Ainhoa Martin sarituak izan ziren Gipuzkoako Igeriketaren galan.

2016-09-20. LOKE atletismoko prestatzaile Amaia Andres Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakari izendatu zuten.

2016-09-30. Ostadar SKTren saskibaloia atalak talde berri bat atera zuen: emakumezkoen 1go mailako senior probintziala.

2016KO URRIA

2016-10-01. Denera 140 neska gazte hasi ziren kirola egiten aurten Eskola Kirola egitasmoan. **2016-10-30.** Herriko hainbat emakume hartu zuten parte Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien XXI. edizioan. Bizkorrena Anabel Eleno izan zen, 42:23ko denborarekin.

2016KO AZAROA

2016-11-06. Judith Navarro infantil mailako saskibaloia jokalaria Euskadiko txapelketan aritu zen Gipuzkoarekin.

2016-11-13. Behobia Donostia lasterketa entzutetsuan aritu ziren hainbat herritar. Beterano kategoriako Mari Carmen Oloso izan zen azkarrena. 01:33:70ko marka egin zuen. Handik bi aste barru, Donostiako Maratoian, Anabel Eleno izan zen lehen emakumezko herritarra helmugan, 3:09ko denbora eginda.

2016-11-21. Getaria-Zarautzek trainerua aterako ez zuela iragarri eta gero, Donostiara taldera joatea erabaki zuen Intza Fernandez arraunlariak.

2016KO OTSAILA

2016-12-06. Paola Vega errugbi jokalaria Gipuzkoako Federazioak antolatutako entrenamendu saio batean aritu zen.

2016KO ABENDUA

2016-12-09. Nely Carla Alberto eskubaloia jokalaririk Europako txapelketa jokatu zuen Espainiako selekzioarekin. Ezin izan zuten lehenengo fasea gainditu.

2016-12-17. Aizpea Arroyo gimnastak 2016ko emakumezko kirolari onenaren saria jaso zuen udalaren eskutik.

2016-12-23. Ostadar SKTKirol alor berria aurkeztu zuen: inklusioarena, kirol egokituarena. Mugimendu urritasuna duten

gazteek kirola egiteko aukera bikaina dute.

2016-12-26. Gure herriko kirol zerbitzuak Maialen Chourrauten izena hartu zuen ofizialki. Piraguistak berak inauguratu zuen plaka.

2017KO URTARRILA

2017-01-13. Buruntzaldea IKTko kide Nahia Zudaire txapeldun izan zen igeriketa egokituko Espainiakoa.

2017-01-20. Padelo Kirol Klubak antolatuta, III. Padel txapelketa hasi zen. Aurreneko emakumeen kategorian osatzea lortu zuten antolatzaileek: sei bikote ari dira lehian.

2017-01-28. Ostadar SKTKo Emakumezkoen Lurralde mailako futbol taldeak Euskal Ligara igotzeko fasea jokatzeko txartela eskuratu zuen matematikoki, jardunaldi baten faltan. Bigarren urtez jarraian ari dira eronka horri aurre egiten.

2017KO OTSAILA

2017-02-06. Paola Vega errugbi jokalaria Gipuzkoako Federazioak antolatutako entrenamendu saio batean aritu zen.

2017-02-11. Bi hamarkada eta gero boxeo itzuli zen herrira. Kirolean parekidetasuna aldarrikatze aldera egin zuten ekitaldi hori.

2017-02-12. Maria Eugi atletak brontzea irabazi zuen Espainiako Promesa txapelketan (200 metro).

2017-02-18. Maria Mendibe triatleta herritarrak Sopolako duatloia irabazi zuen, 01:07ko denbora ederra eginda.

2017-02-26. Buruntzaldea IKTko igerilariak maila ederra eman zuten Euskal Herriko Neguko txapelketan: Leire Martinek, hiru urte; Ainhoa Martinek urrea eta zilarra, brontzea Nora Qian Villamedianak eta podiumetik gertu Itsaso Tolosa.

2017KO MARTXOA

2017-03-05. Eneritz Busto atletak zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako junior txapelketan, 60 metro hesietan.

2017-03-05. Inoiz baino herritar gehiagok eman zuten izena 28. Lilatoian parte hartzeko. Guztira, 138 emakume.

2017-03-07. Ostadar Ipar Martxa taldekoek (emakumezkoak dira kide gehienak) urteko lehen ikastaroa eskaini zuten, modalitate hori egiten ikasi nahi diren herritarrekin.

"Zilarra lortu izana sari bikoitza izan da niretzat"

ENERITZ BUSTO LOKE TALDEKO ATLETA

Maila handia erakutsi du azken urteetan Eneritz Bustok 60 metro hesietan. Pistako denboraldiari amaiera bikaina eman dio Espainiako Txapelketan zilarra eskuratuz

Martin Vicioso

Bi ehuneko gorabeherak erabaki zuen 60 metro hesietako Espainiako junior mailako Txapelketako podiuma. Bertan, Eneritz Busto atleta lasarteoriatarrek bigarren koskara igotzea lortu zuen, kronoa 8,82 segundutan geldituz. Finalerdietan bere markarik onena finkatzea lortu zuen, eta bolada onari eutsi nahian, aire libreko denboraldia prestatzeari ekingo dio datozen astetan.

Zilarra lortu duzu Espainiako junior mailako txapelketan, eta urrea ez zen urruti ibili.

Egia esan, ez. Hiru lehenengoak bi ehunen barnean sartu ginen. Amaitzean, ez genekien zeinek irabazi zuen eta asko urduritu nintzen. Negargurea eta dena sartu zitzaidan. Pantailan ikusi nuen bigarren nintzela eta hunkitzeaz gain, poztasun handia hartu nuen. Oso polita izan zen. **Beraz, txapelketa ondo joan zen.** Bai. Lasterketa guztiak larunbatean korritu genituen



Eneritz Busto, helmugaratzen. JOSE LUIS MARTINEZ

60m hesietan aritzen garenok. Goizean sailkatze froga egin genuen, arratsaldean finalerdiak eta gauean finala. Ordubeteko atzerapenarekin ibili ginen, eta luzea egin zitzaidan. Hala ere, finalerdietan nire markarik

onena egin nuen, 8,75 segundu, eta oso pozik nago egindakoarekin. **Absolutuetan lan ona egin arren, ezin izan zenuen sailkapena eskuratu.**

Egia esan, sekulako maila aurkitu nuen Salamancan, eta banekien

oso zaila izango nuela sailkapena lortzea. Pentsa, irabazlea Rioko joko olinpikoetan lehiatu zen. Ez nintzen oso urruti geratu, baina ehuneko gutxi horiek hobetzea ez da erraza, eta oraindik diferentzia handia dago gure artean. Hala ere, egia da gazteenetakoa nintzela.

Atleta gipuzkoarrak ondo aritu zineten Valentzian eta Salamancan. Hala da. Nahiko emaitza onak izan genituen, eta ordezkariak zabala bidali genuen. Beti ez dugu nahi dugun errendimendua lortzen, baina marka onak lortu ditugu orokorrean, eta lan ona egiten dugun seinale da. **LOKEN lortutakoarekin ere pozik gaude.** Ez gara asko taldean, baina gure buruari jartzen dizkiogun erronkak gaintzen saiatzen gara.

Aurten ez zara txapelketa askotan aritu.

Ez da ohiko denboraldia izan niretzat. Anemia pairatu dut, eta konpetizio gutxitara joan naiz. Espainiako Txapelketarako gutxiengo denbora ziurtatu nuenean, entrenatzaileak eta nik erabaki genuen prestakuntza lasaitzea. Nire erritmoan entrenatu eta sendatzea zen helburu nagusia, Espainiako Txapelketan ahalik eta hobekien aritzeko. Hortaz, aurten ez naiz Gipuzkoako edo EA Eko lehiaketetara joan.

Pozgarrria izango zen, beraz, gaizki pasa ondoren emaitza on hauek lortzea

Oso. Esan bezala, ez da ohiko denboraldia izan eta zilarra lortu izanak edo nire marka pertsonala hobetzeak asko poztu nau. Bigarren sari bat izan dira niretzat.

Datozen hilabeteetan ze hitzordu daukazu?

Aire libreko denboraldia oraintxe hasiko dugu. Junior mailako atletak azkenak izan gara pistakoa amaitzen eta, beraz, trantsizio laburragoa izango dugu. Aire librean 100 metro hesiak egingo ditut, eta ahalik eta azkarren moldatu beharko naiz, berehala hasiko baikara parte hartze libreko frogekin.

Datorren urtera begira, zein dira zure erronkak?

Junior maila atzean utziko dut eta promesa izango naiz. Hiru urteko kategoria denez, datorren denboraldia zaila izango dela badakit. Izan ere, zaharragoen kontra lehiatzea egokituko zait. Hala ere, esperientzia hartzeko eta hobetzeko aukera ezinhobea da. Kategoria berrian daukadan onena emateko asmoa dut, dena den. Gainera, kontuan hartu behar da edozein lasterketetan nire buruaren kontra lehiatzen dudala lehenik.

"ZILARRA IRABAZI NUENEAN ASKO HUNKITU NINTZEN; OSO MOMENTU POLITA IZAN ZEN"

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
KADETEEN 1GO MAILA, KOPA
Ostadar SKT 'B' - Antigua Luberri 'B' Larunbata. 10:30. Michelin.
Danena KE 'B' - Ostadar SKT 'A' Larunbata. 15:00. Elbarrena, Zizurkil.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Larunbata. 12:15. Mastegi, Lesaka.
INFANTILEN OHOREZKO KOPA
Mariño CD - Ostadar SKT Larunbata. 12:45. Ugalde Ventas, Irun.
EMAKUMEEN IGOERA FASEA
Ordizia KE - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Altamira, Ordizia.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Amaiak Bat KE Larunbata. 17:15. Michelin.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Hernani Larunbata. 15:30. Michelin.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Kebab Taberna - Izkiña Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
Viña del Mar - Trumoi Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
Txoko - Ilargi Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Indaux - Reformas Lagunak Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
Aita Amari - Urdaneta H.K. Larunbata. 12:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA
ISU Leihoak - Inter Eder Kafetegia Ostirala. 20:55. M.Chourraut kiroldegia.
Cecilia Ostadar - Jaixki AFT Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.
GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Kafe Buenetxea - Aloña Mendi KE Igandea. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.

NAZIONAL 3. MAILA
Soloarte FC - Ostadar Antonio Aroztegia Igandea. 18:00. Artunduaga kiroldegia, Basauri.
SASKIBALOA
PARTIZIPAZIOKO KADETEAK
Ostadar SKT - Ordizia 2001 Larunbata. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Ostadar SKT - ZAST Zarautz Larunbata. 11:00. M.Chourraut kiroldegia.
ERRENDIMENDUKO JUNIORRAK
Ostadar SKT 'A' - Ostadar SKT 'B' Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.
SENIOR GIZONAK, 3. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Mutriku Larunbata. 20:00. M.Chourraut kiroldegia.
SENIOR EMAKUMEZKOA, 1. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Oiarso Igandea. 11:00. M.Chourraut kiroldegia.

PILOTA
ESKUZ BINAKAKOIA
Arteaga II/Erasun - Peña II/Salaverri Ostirala. 22:00. Michelin pilotalekua.
UDABERRI TXAPELKETA
Intza - Soraluez Igandea. 11:00. Michelin pilotalekua.
ERRUGBIA
14 URTE AZPIKOA
At. San Sebastian - Gure Etxea Beltzak Larunbata. 10:00. Aiete, Donostia.
16 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - Gaztedi RT Larunbata. 11:00. Asti, Zarautz.
18 URTE AZPIKOEN LIGA
Gure Etxea Beltzak - Gaztedi RT Larunbata. 12:15. Asti, Zarautz.
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz - Univ. Bilbao Larunbata. 16:00. Asti, Zarautz.

IGERIKETA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Nahia Zudairek igeriketa egokituko Espainiako Txapelketan hartuko du parte. Larunbata eta igandea. Oviedo.
TXIRRINDULARITZA
INFANTIL, KADETE ETA JUNIORRAK
Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako txirrindulariek lasterketak korrituko dituzte Azpeitian - juniorrek-, Zarautzen -kadeteek- eta Hernanin -infantilek -. Larunbata eta igandea.
JUDO
ESPAINIAKO TXAPELKETA
LOKEko junior mailako judokak Espainiako Txapelketa lehiatuko dute. Larunbata. 10:00. Pabellón Municipal Principe de Asturias, Pinto.

Padelo Kirol Kluba, 2. mailako txapeldun

Estreinaldi ezin hobea izan du Padelo Kirol Klubak taldekako txapelketetan. Gipuzkoako 2. mailakoan eman zuen izena duela hiru hilabete sortutako elkarteak, eta txapela janztea lortu dute asteburuan.

Iñigo Gonzalez

Ezin uka daiteke Padelo Kirol Klubaren ibilbidea indar betean hasi denik. Duela hiru hilabete sortu zuten egitasmoa, eta dagoeneko txapeldun izan dira Gipuzkoako 2. mailako taldekako txapelketan. Asteburu honetan jokatu dute eta kaleratze-faseak atzean uzten joan dira etengabe, podiumaren maila gorenera iristeraino.

Xabi Ansa, Urko Sagastibeltza, Joseba eta Ander Rekondo anaia, Aitor Otamendi, Borja Rodriguez, Ruben Amenabar, Guille, Carlines, Iñaki eta Paxok osatu dute talde txapelduna.

Igande arratsaldean jokatu zuten final handia Donostiako Real Club de Tennis taldearen aurka.

Rekondo anaiek jokatu zuten lehenengo partidua, eta partidua irabazteko bi bola eduki zituzten arren, 'tiebreak'-ean galdu zuten. Xabik eta Urkok berea sendotasunez atera zuten aurrera, 6-1 eta 6-4 menperatuz bikote aurkaria.

Guillek eta Paxok jokaturako partidu "zirrarragarrian" erabaki zen txapelketa. Lehenengo seta 4-6 galdu ostean, 7-5 irabazi zuten bigarrena lasarteoriatarrek. 'Tiebreakean' Padeloko kideek ziurtatu zuten finala, 12-10.

Klubeko arduradun Ruben Amenabarrek azaldu du "oso pozik" daudela klubak jokaturako lehenengo lehiaketa irabazi izanaz.

Gauzak horrela, datorren urtean taldekako lehenengo mailan aritzeko aukera eduki dezaketeela nabarmendu du Amenabarrek.

Lasarte-Oriako III. Padel txapelketa

Asteak igaro ahala, aurrera doa Lasarte-Oriako III. Padel txapelketa, Padelo klubak berak antolatutakoa. Gaurko egunez, hau da egoera:.



Gipuzkoako 2. mailako taldekako txapelketa irabazi duten padel jokariak. PADELO

TALDEKAKO LEHENENGO MAILAN JOKATZEKO AUKERA IZANGO DUTE DATORREN URTEAN

Lehenengo mailan bi bikote daude goiko postuetan berdinduta: Xabi Ansa-Urko Sagastibeltza eta Beñat Pagoaga-Alberto Rascon. Bina partidu jokatu eta beste hainbeste irabazi dituzte. Ander eta Joseba Rekondo anaiek, Jon Esnalek eta Ruben Ortizek eta Aitor Otamendik eta Jon Aginagak partidu bakarra jokatu eta irabazi dute. Bigarrena ere irabaziz gero, goian leudeke eurak ere. Behealdean, Paxo-Carlines (bi puntu) eta Ruben-Borja (puntu bat) bikoteak daude oraingoz.

Bigarren mailan German-Montxo bikotea da sendoen dabilena orain arte. Bost partidu jokatu dituzte eta hamaika puntu bildu. Gertu dauzkate Juan Luis eta Miguel: lau partidu jokatu eta hamar puntu pilatu dituzte. Ander Zapiain-Xabier Aparizio eta Jose Miguel-Manu bikoteak ere ederki ari dira: hirutik hiru partidu irabazi dituzte orain

arte. Sailkapenaren azken postuetan ere estua da lehia: hiru partidu jokatu eta galdu ditu Patxi Garcia-Alberto Lopez bikoteak, eta bitik bi Txemak eta Bernaitzek.

Gizonezkoen kategoriekin bukatzeko, Hirugarren mailaz hitz egin behar. Ruben Cabaco-Iñigo Lopez eta Victor Rico-Iñigo Garde daude lidertzan, bederatzina punturekin, hiru partidu jokatu eta beste hainbeste irabazita. Orain arte jokaturako guztia irabazi dute baita ere (bi partidu) Jose Mari Izetak eta Julen Loidik osatutako bikoteak. Xabi Bobillo-David Muñoz (bi puntu) eta Janpol-Iñaki Garmendia (puntu bakarra) daude azken postuetan oraingoz.

Eta, Emakumezkoen kategorian ere pil-pilean dago. Kris-Elena eta Maria Eugenia-Itziar bikoteak dira indartsuen hasi direnak, hirutik hiru partidu irabazi eta bederatzita puntu zakuratuta. Gertu daukate Kontxi-Bea bikotea, dena den; zortzi puntu lortu dituzte lau norgehiagokatan. Monika-Asun bikotea da orain arte puntu gutxien pilatu duena: hiru beste hainbeste partidutan.



BURUNTZALDEA IKT

Zudaire, Espainiako Txapelketan

Asteburu honetan jokatu da Oviedon igeriketa egokituko Espainiako Txapelketa. Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek parte hartuko du bertan, Euskadiko Txapelketa irabazi eta marka pertsonal guztiak hobetu ondoren. Bost frogetan egingo du igeri: 50 eta 100 metro tximeleta, 50 eta 400 libreak eta 200 estiloak.



TXINTXARRI

Ezin garaipena eskuratu (3-5)

3. Nazional mailan ari den Ostadar Antonio Aroztegiak ezin izan zuen orain arteko bolada bikainarekin jarraitu, 3-5 galdu baitzuen Muskizen aurka iragan asteburuan, Maialen Chourraut Udal Kiroldegian jokaturako neurketan. Galduta ere, sailkapenaren 10. postuan jarraitzen du taldeak, 19 punturekin. Asteon Soloarte FCekin neurtuko ditu indarrak Ostadarrek.

Axier Arteagak Michelinen bilatuko du finalerako txartela

Gaurko 22:00etatik aurrera, Axier Arteagak eta Jon Erasunek Michelingo pilotalekuan jokatu dute Jon Ander Peñaren eta Ruben Salaverriren aurka. Irabaziz gero, urrats garrantzitsua emango lukete Binakako Promozio Txapelketako finalerako bidean. Izan ere, 22-12 garaitu zituzten Errandonea eta Martija pasa den asteburuan.

Buruntzazpiko Iñaki Errazkin, lehena Hondarribian

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Iñaki Errazkin infantilak irabazi zuen Hondarribian asteburuan jokaturako lasterketa. Bost lehenengoetan hiru taldekide sartu zituen Buruntzazpik, Beñat Carbayeda hirugarren izan baitzen eta Ander Altuna bosgarren. Yerai Changok ere partu hartu zuen.



Ostadar SKTko jokalariek gozoz izerditu zuten Bera Bera taldeari irabazi ahal izateko. TXINTXARRI

Bolada txarra eten dute errendimendu kadeteek

Urte berria hasi zenetik partidurik irabazi gabe zen Ostadar SKTren errendimendu kadete taldea. Iragan larunbatean eten zuten bolada txarra, Donostiako Bera Berari 49-47 irabazita. Gogotik egin behar izan zuten lan jokalaria urdin-beltzek.

Iñigo Gonzalez

Emaitza-dinamika txarretan murgilduta dauden taldeek hori apurto nahi izaten dute kosta ala kosta. 2017a hasi zenetik irabazi gabe zegoen Ostadar SKTren errendimenduko kadete taldea, eta martxoa hastearekin batera hautsi dute azken hilabeteetako bolada txarra. Zehazki, Maialen Chourraut Udal Kiroldegian, joan den larunbatean: 49-47 nagusitu ziren Endika Marrahik zuzendutako jokalaria Bera Beraren aurka.

Lehenengo laurdenetik hasi zen markagailuan agintzen etxeko taldea. Bera Bera goian presionatuz, defentsua estua eginez eta trantsizio bizkorrak burutuz 18-5eko partziala lortu zuten aurreneko hamar minutuetan. Hamahiru puntuko aldea ez da makala, baina saskibaloian berehala aldatu daitezke gauzak. Hala gertatu zen neurketa horretan ere: bigarren laurdenean esnatu egin zen talde donostiarra eta 8-17ko partzialarekin lau

puntura jarri ziren. 26-22ko emaitzarekin joan ziren bi taldeak atsedean hartzera.

Bigarren zatian berriro ere hartu zuen jokoaren lema Ostadarrek, eta tartea irekitzea lortu, markagailuan 41-30ekoa ezarri. Dena dela, hasieran esan bezala, dinamika txarretan dabilzan taldeek majo sufritu ohi dute bukaerara arte, eta hala gertatu zitzaion Ostadarri. Zorionez, Bera Beraren erreakzioa ez zen partida iraultzeko bezainbestekoa izan, eta garaipen baliotsua poltsikoratu zuen etxeko taldeak, 49-47.

Gauzak horrela, bigarren faseko lehenengo garaipena eskuratu du Ostadar SKTk, eta sailkapenaren behealdean

2017. URTEA HASI ZENETIK PARTIDURIK IRABAZI GABE ZEUDEN ERRENDIMENDUKO KADETEAK

jarraitzen badu ere, Bera Bera taldea atzean utzi du (bost partidutik ez dute bakar bat ere irabazi donostiarrek).

Saskibaloiaz gozatzeko aukera

Gauza benetan bitxia gertatuko da asteburu honetan herrian: Ostadar SKTren saskibalo alorra osatzen duten talde guztiek Udal Kiroldegian jokatuko dute.

Emakumezkoen 1go senior probintzialak igandean jokatuko du Oiarsoren aurka, 11:00etan. Gizonezkoen 3. mailako senior probintzial taldeak, berri, bihar arratsaldean: 20:00etan hasiko da Mutrikuren aurkako neurketa. Jardunaldiko partidu deigarrienetako bat junior mailakoa izango da: errendimendu kategoriako bi taldeek elkarren aurka jokatuko dute bihar 18:00etan.

Errendimendu kadete taldea ere bihar goizean ariko da Zast Zarautzen kontra, 11:00etan. Partizipaziokoa, azkenik, bihar, 09:30ean, Ordiziaren aurka.



Lavie ZRT Beltzak B taldea, aldageletako ospakizunean. ZARAUZKO RUGBY TALDEA

Lavie ZRT Beltzak B taldeak 39-7 garaitu zuen Eibar B

Partidu bikaina jokatu zuen Euskal Ligan ari den taldeak; lau lasarteoriatar aritu ziren eurekin jokatzen

Txintxarri

Ostiral arratsaldean neurtu zituzten indarrak senior gizonezkoen Euskal Ligan ari diren Lavie ZRT Beltzak B eta Eibar B taldeek. 19:30ean hasi zen neurketa, Zarauzko Asti zelaian. Etxeko taldearekin lau herritar aritu ziren: Julen Aristorena, Xabi Prieto, David Vega eta Unai Urruzola.

Denboraldi honetan sei aldiz jokatu beharko dute elkarren aurka bi taldeek; beraz, arerioa txunditzeko aukerak ez dira oso altuak. Dena den, mele eta plakaje ugariren bitartez, zarauztarrek 39-7 irabazi zuten. Zelaia ez zegoen baldintza onenetan euria tarteko, baina hori ez zen oztopo izan kostako taldearentzat.

Bestalde, Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautzek atsedean hartu zuen iragan asteburuan. Oraingo honetan, ordea, Universitario Bilbao

taldearen aurka ariko da Astin. Liga erregularra bukatzeko hiru jardunaldiren faltan, hirugarren tokian da, eta euren eskuetan dago igoera playoffak jokatzeo aukera emango liokeen postu hori mantentzea.

Harrobiko taldeak ere lehian

16 eta 18 urtez azpiko Gure Etxea Beltzak taldeak Elorrioren (Bizkaia) lehiatu ziren joan den larunbatean, Durango-Elorrio konbinatuaren aurka. Gailentzea lortu zuten biek, alde handiz gainera: 5-73 irabazi zuten 16 urtez azpikoek eta 17-48 18 urtez azpikoek.

Azkenik, Lavie Beltzak errugbi eskolako 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoek gogotik gozatu zuten Baigorri (Nafarroa Beherea), bertako hainbat talderen aurka jokatuz, eta, batez ere, errugbiak disfrutatuz. Bereziki aipagarria izan zen 10 urtez azpikoek lana.

Igoera faseko lehen garaipena Ostadar SKTrentzat (3-1)


Aurreko asteko arantzatxoa atera zuen Ostadar SKTk, Mutrikuren aurka Michelinen jokatutako neurketan. 3-1 irabazita, igoera faseko lehen garaipena erdietsi zuten urdin-beltzek.

Bi partidu jokatu dituzte: bat irabazi eta bestea galdu. Hirugarren postuan dira orain sailkapenean, beste hainbeste puntu bildu dituztela.



Bi jokalaria lehia betean. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK




Eneritz
Zorionak bihotza! 10 urte! Ondo pasa zuren eguna. Muxuak etxekeon partetik.



Oier
Zorionak pottoko zure 7. urtebetetzean. Txokolatezko muxuak, famili guztiaren partetik, muak, muak, muak!!!



Oihane
Zorionak guapa!!! Oso ondo pasa zure eguna eta gozatu 7 urteak! Musu handi bat familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu!!!



Oier
Zorionak!!!! 10 urte hauetan zure ondoan egotea zoragarria izan da, asko maite zaitugu. Maddi, Unax, aita eta ama.



Iugatz
ZORIONAK maitia, badira 8 motibo kantatzeko alai. Ondo pasa eta muxu asko familia guztiaren partetik.




Manolo
Zorionak aita!!! Familia guztiaren partez! Muxu handi bat



Aner
Zorionak bihurri!!! Oso ondo pasa zure 3. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Lur
Zorionak Lur, zure 11. urtebetetzean, hamaika muxu aitabxo eta amatoren partetik.




Iune
Zorionak sorgintxo!! 4 muxu erraldi familia guztiaren partetik. Oso ondo pasa!!



Erik
Zorionak guapo! Dgoeneko 4 urte! Asko gozatu zure familiarekin. Asko maite zaitugu!



Irati
Zorionak preziosa! egun politta izan dezazula. Muxu handi bat lagunaren partez!!



Eneko
Zorionak Delpu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en

txintxarri.eus/zorionagurra eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia abikitzeaz.

*Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.*

GUTUNA

Epe-muga aurreratuaren abusuzko klausula baligabea delako, klausula horretan oinarritutako hipoteka exekuzioak bertan behera uztearen alde

KALERATZEAK STOP PLATAFORMA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Etxegabeteak stop plataformok auzitegi gorenaren jarrera salatzen dugu, europako justizia auzitegiari klausula hau baliogabea izan arren hipoteka exekuzioekin jarrai dezakeen galdetzen aritzeagatik.

Klausula honen arabera ankuak zor osoa eskatzeko eskubidea du, kuota bakar bat ez ordaintzeagatik bakarrik. honi esker ari dira iruzur finantzarioaren biktima izan diren milaka familia etxegabeten.

Kuota bat ordaintzeko gai ez bazara, are gutxiago zor osoa ordaintzeko, noski. Horrela berehala etxea enkantean atera dezakete, eta gainera zu zor osoarekin geldituko zara, bizi osorako zor bat.

Milioika pertsonen borrokari esker, Europako justizia auzitegia abusuzko klausulak eta bereziki epe muga aurreratuaren klausula baliogabetezko esaten ari zaio espainiako gobernu eta auzitegi gorenari, 93/13 direktiba europarraren aplikazi gisa. Auzitegi gorenak egindako galderak bere bankuen aldeko posizioa erakusten du, artxibapenak atzeratu eta legea ez betetzeko saiakera bat besterik ez baita. berdina egin zuten zoru klausulekin.

Honegatik, Euskadiko Kaleratzeak stop plataformak

estatu mailako PAH-k egindako deialdira atxikitu gara, es tatu osoko epaitegien aurrean elkartaratzeak egiteko deialdira. Bertan epaile de kanoari zuzendutako idazki bat helaraziko dugu, hipoteka exekuzio guztiak bertan behera uztea eskatuz europako ju stizia auzitegiak erabaki bat hartu arte behintzat eta eae-ren kasuan horiek artxibatzen jarraitu dezaten eskatuz.

EAE-ko 1. instantziako epaitegietan eta entzutegi probintzialeko hainbat sekziotan lotu ditugu horrelako hipoteka exekuzioen artxibatzeak, europako justizia auzitegiaren jurisprudentzian oinarritu direnak epe-muga aurreratuaren klausula baliogabetez jotzeko, auzitegi gorenaren doktrinaren aurka guzti hau familia kaltetuen

defensa juridikoei, bankuen egoitzen aurrean egindako mobilizazioei eta hiru lurraldetan onartutako euskadi etxeabetezik gabeko lurraldea deklaritzen duten mozioei esker.

Guzti horregatik, euskadin datu judizialen arabera hipoteka exekuzioek gora egin duten aren, etxegabeteek behera egin dute. Salaketa horietako asko artxibatu direlako, beste kasu batzuetan banku praktika onen kodeak eskaintzen duen 5 urteko kuota murriztua edo bi urtetarako etxegabetearen azterapena lortu delako.

Beren ohiko etxebizitzaren kuotak ordaindu ezin dituzten familia zorpetu guztien hipoteka exekuzioak bertan behera uztearen alde.

Bai ahal dugu!!

OHARRAK

Eskiatzera irteera

Kuadrillategik antolatu zuen eski irteera bertan behera geratu dela jakitera eman dute sustatzaileek.

'Go!azen'

ikuskizunerako sarrera irabazleak

Kuadrillategik Oier Larrañagak irabazi ditu bi sarrera 'Go!azen' ikuskizunerako. Amaraun Klubeko Oier Ipintzak ere sarrera bikoitza eskuratu du baita Gazte Klubeko Malen Callek eta Markel Alvarezek ere. Zorionak!

'Tipi-Tapa Korrika'-saiorako sarrera irabazleak

Txintxarri zozketatutako pailazoentzako sarrerak, Ariane Simon eta Olaia Holgadoentzat izan dira. Zorionak!

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU
Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265

2. LAN ESKAINTZAK

201. ESKAINTZAK
Emakume bat zaintzeko interno moduan lan egingo duen pertsona

bilatzen ari gara. 688 645 791

202. ESKAERA
Emakumea eskaintzen da gauetan pertsona helduak zaintzeko. Vilma. 634 278 198

3. SALEROSKETA


301. SALDU
Sofa ia berria saltzen da, gris iluna 2 metro luzekoa

eta bizkarra zein oinazpia mugitzen dira. 943 366 114

4. IRAKASKUNTZA

402. EMAN
Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila eta adin guztiei zuzenduta 693 601 222.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Beñat Tercero Huete. Martxoaren 6an.
Adei Garcia Solagaistua. Martxoaren 1ean.

HILDAKOAK

Joshe Zapirain Lizaso. Martxoaren 8an, 81 urte.
Pedro Escaño Saez. Martxoaren 7an, 94 urte.
Alfonso Martin Palacios. Martxoaren 6an, 28 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 10 LASA
Larunbata, 11 GIL
Igandea, 12 GIL
Astelehena, 13 ACHA-ORBEA
Asteartea, 14 GIL
Asteazkena, 15 URBISTONDO
Osteguna, 16 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa
Maider Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Informatikoa
Xabier Amadoz.

Administraria
Arkaitez Urdapilleta.

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
1134 0053

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Antzerkia

Lan eta lan antzerki taldeak 'Agora de Mujeres' lana eskainiko du. Martxoaren 8ko egitarauaren baitako ekintza da. Sarrera 3 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

ANDOAIN Antzerkia

'Gibraltareña' Elisa Matilla protagonista duen lana ikusgai. Martxoaren 8ko egitarauaren barrukoa. Sarrera 12 euro.

Bastero, 22:00etan.

USURBIL Bertso Afaria

"Testurak" bertso afaria izango da Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin. Gai jartzailea izango da Maite Berriozabal. Txartelak 16 eurotan Bordatxon eta Aitzagan salgai.

Artzabal, 21:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Zumba

'Zumba Maratoia' egingo da. Saio irekia izango da parte hartu nahi duten herritar ororentzat. Martxoaren 8ko egitarauaren baitako ekimena da.

Okendo plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Elkarretaratzea Martxoaren 8a dela eta.

Okendo plaza, 13:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

'Cuaderno en blanco' antzezlana ikusi ahal izango da Hika Teatroaren eskutik. Martxoaren 8ko ekintza egitarauaren parte da. Sarrera 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

ANDOAIN Ikuskizuna

'Erradikalak gara' ikuskizuna Korrika Kulturalaren baitan. Ane Labaka eta Bea Egizabal herritarren lana da hau.

Bastero, 19:00etan.

HERNANI Haur Antzerkia

'Euria' ikuskizunaz gozatu ahal izango dute 5 urtetik gorakoek



LASARTE-ORIA Elkarretaratzea.

Martxoaren 8ko elkarretaratzea egingo da. Aste osoan zehar hainbat izan dira antolatutako ekintzak egun honen inguruan eta asteburuan ere izango dira ekitaldi bereziak.

Larunbata, Okendo plaza 13:00etan

Markeliñe taldearen eskutik.

Sarrera 2,70 euro.

Biteri, 11:00etan.

URNIETA Dantza

'Hormek diote' Haatik dantza konpainiaren ikuskizunaren aurrestreinaldia. Hormek esango luketeena aitzaki hartuta Haatikel elkarbizitzako zailtasun eta arazoez ausnartuko duen dantza ikuskizuna sortu du. Sarrera 5 euro.

Sarobe, 19:30ean.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

'Golazen' telesailaren oinarritutako antzezlana gozatu ahal izango da. Bi saioetarako sarrerak agortuta daude.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

ANDOAIN Dantza

'El lagarto baila' familiei zuzendutako dantza ikuskizuna. Sarrera 4 euro.

Bastero, 17:00etan.

USURBIL Dokumentala

'En tránsito' dokumentalaren emanaldia. Martxoaren 8ko egitarauaren baitako ekintza da. Sarrera doan.

Suteji, 18:00etan.

ASTEARTEA 14

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Lasarte-Oriako Sarek konzentrazioa egingo du larriki gaixorik dauden presoek etxeratzea eskatuz, tartean Ibon Fernandez Iradi herritarrarena. Horretaz gain, datozen asteetarako prestatutako ekintza egitaraua aurkeztuko du.

Anbulatorio ataria, 19:00etan.

ASTEAZKENA 15

ASTIGARRAGA Ikastaroa

Argazkilaritza ikastaroa. Parte hartzaile bakoitzak bere kamera eraman beharko du. Maddi Montero izango da gai-emailea. Doan. Izen ematea astigarraga@ aek.eus

Nabarra Oñiz kaleko egoitza, 9:30ean.

OSTEGUNA 16

ASTIGARRAGA Ikastaroa

Egoitz Zapiain sagardogilearen eskutik, sagardo dastaketa gidatua egingo da. Izen ematea astigarraga@ aek.eus helbidean. Doan.

Zipotz Elkarte, 18:30ean.

ZINEMA

ANDOAIN

Ostirala: 16:00, 18:10.
Larunbata: 16:00, 18:10.
Igandea: 16:00, 18:10.

BASTERO

Cincuenta sombras más oscuras
Larunbata: 19:30, 22:00.
Igandea: 19:30.
Astelena: 19:30, 22:00.

URNIETA

SAROBE
Peter y el Dragón
Igandea: 16:00.

USURBIL

URBIL
Ballerina
Ostirala: 15:45, 17:45.
Larunbata: 15:45, 17:45.
Igandea: 15:45, 17:45.

Batman: La lego película

Ostirala: 16:00, 18:10.
Larunbata: 16:00, 18:10.
Igandea: 16:00, 18:10.

Cincuenta sombras más oscuras
Ostirala: 22:25, 00:55.
Larunbata: 22:25, 00:55.
Igandea: 22:25, 00:55.

El fundador
Ostirala: 17:45, 22:00.
Larunbata: 17:45, 22:00.

El guardián invisible
Ostirala: 16:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.
Larunbata: 6:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.
Igandea: 16:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.

El guardián invisible
Ostirala: 16:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.
Larunbata: 6:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.
Igandea: 16:05, 18:45, 19:45, 21:50, 00:30.

18:45, 19:45, 21:50.
Es por tu bien
Ostirala: 15:55, 18:30, 20:35, 22:55, 00:55.
Larunbata: 15:55, 18:30, 20:35, 22:55, 00:55.
Igandea: 15:55, 18:30, 20:35, 22:55.

Gold
Ostirala: 15:45, 20:15, 00:45.
Larunbata: 15:45, 20:15.

Kong: La isla calavera
Ostirala: 16:00, 17:55, 20:25, 22:40, 00:55.
Larunbata: 16:00, 17:55, 20:25, 22:40, 00:55.
Igandea: 16:00, 17:55, 20:25, 22:40.

La Gran Muralla
Ostirala: 00:55.

Larunbata: 00:55.
Logan
Ostirala: 16:10, 19:10, 22:00, 00:45.
Larunbata: 16:10, 19:10, 22:00, 00:45.
Igandea: 16:10, 19:10, 22:00.

Manchester frente al mar
Ostirala: 22:00.
Larunbata: 22:00.
Igandea: 22:00.

Moonlight
Ostirala: 20:20, 22:40.
Larunbata: 20:20, 22:40.
Igandea: 20:20, 22:40.

Zona hostil
Ostirala: 15:50, 18:15, 20:05, 22:45, 00:20.
Larunbata: 15:50, 18:15, 20:05, 22:45, 00:20.
Igandea: 15:50, 18:15, 20:05, 22:45.



LABURPENEA

Peter y el dragón

Zuz.: David Lowery. **Herr.:** AEB.(2016). **Aktoreak:** Bryce Dallas Howard, Robert Redford, Oakes Fegley. **Hizkuntza:** Gaztelera. **Iraupena:** 102 minutu.

Dragoi handiaren bila

Urte luzetan Meacham jaunak herriko umeak txunditu ditu dragoi beldurgarri baten inguruko istorioekin. Dragoia bere esanetan Pazifikoko ipar basoetan bizi da. Grace bere alabarentzat, baso zain bezala lan egiten du Gracek, umeentzako ipuinak dira aitaren betiko istorio horiek.

Baina iritzi aldatuko du Peter ezagutzearan. Peter 10 urteko ume misteriosua da. Ez dauka familiarik ezta etxerik ere ez, ez omen du gizakiekin harremanik izan. Honek dio basoan bizi dela Eliott izeneko dragoi eraldioarekin eta hark zaindu duela beti.

Natalie izeneko 11 urteko neska laguntzarekin, aita herriko zerrategiko jabea da, Grace arakatuko du Peterren bizitza, bere jatorria bilatuko du eta dragoiaren historia egia ala gezurra den jakingo du.

Biek hamaika abentura biziko dituzte dragoiaren bila. 1977an egindako film baten egokitzapena da eta oso kritika onak jaso ditu. "Disney ekoiztetxeko filmen jarriztaileentzat" eginda dagoela diote zinema kritika ezberdinek.

Disney izan arren, sei urtetik gorako umeei zuzendutako filma da hau. Sarrera 4 euro.

KOMIKIA



R.P.S. 175/15 L.L.G.

Gama altuko
2 mō betaurreko progresibo
197€

www.multioplicasgipuzkoa.com

**ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA**

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA

7

hitzartutako
ETXEBIZITZA BERRI
LASARTEN

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ

TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK SANTA BARBARA ALDERA
PERTSONALIZAZIO GUZTIAREKIN

DENA BARNE
Garajea, sukaldea, armairuak, pertsonalizazioa.

Izen emateko azken eguna: **APIRILAK 11**

943 36 89 42

www.zabaletaberri.es